4.<sup>º</sup> Itz au aintziña ta beñola «bai» esaten zala-ta orain be osorik ogutzi ezkerro, «bai» litzakela orok autoítu bear dabe. Urlia etorri ete-da? Bai, bai jauna; bai, andrea Urlia etorri ete-da? Ba da etorri. Lengo «bai» arek eta oingo «ba» onek ikuí bat dauke; gauza bat eta bardiña adierazten dabe. Ori ta guzti be, arako lenengo a «bai» eta bigaén au «ba» idatzi bear ei-doguz: baña nik diñot eta zuzen nagoala dirudit: itz bakaña ta ikuí bardiñaz darabilgun itza ¿zer dala-ta idatzi bear dogu, batean batera ta bestean bestera? Kirol-zale egin ete-gara? (Beste aldi batzu- etan be aditz-auretik «bai» erabilten dogu: orain esatera nuana bai dala polita (Lardizabal); iorixe bai dala gauza ederá! (Uruzuno): Jesusen Biotzaren Deya 1920 Uñila. Ementxe bai egin dogula, etc. (S. Altube). Orixo bai dala guzuí galanta! Bai ote? Bai ote-daki? (Azkue) Oraintxe bai ikusten dot. ¿Zegaitik esan bear ete-dogu batzuetan onelan, eta uñengoan bestera: ba da polita; ba da ederá, ba daki, oraintxe ba dakust, ikuúpen bardiña dauan itza era bitara idazten dogularik?

5.<sup>º</sup> «Bai» ren ordez «ba» idatzi aíen zalantzarak iñoz be ez ei-dago idatzietan: ostera, «ba» ren ordez «bai» idatzi ezkerro, euskalkien arteko nastea ei-dator. Nire eretxiz, «bai» ren ordez «ba» idatzi ezkerro, zalantzadun idazkerak legokez eta ba'ren ordez bai idatzi

ařen, euskalkien arteko nasterik ez letoiře: baňa ba'letoř be, neste ori kentzea sartu dauen euskalkiari dagokio ta ez besteai.

1.º Baldintza adierazten dauen «ba» ta bayetza dikuřana, eřiak ež ditu bardin oguzten: badakař, «si lo trae» ta badakař (bakar) «sí lo trae», eřiak oguzkeran berezten ditu; baňa idatzietan ſzelan berezikor ete-doguz? Ikuřen bat-edo ipiňita? Bai, noski; baňa ori baňo «bai» idatzi obe da. «Bai» ren ordez «ba» idatzi ezkero, zelan irakuři be ezin jakin geinke, esakunaren aimaira eldu arte beintzat:

Aita ba-datoř eta zure eskubarea ba-dakař, irurok joango gara basora.

Aita ba-datoř eta zure eskubarea ba-dakař.

Aita ba-doa ta zu non zagozan ba-daki, bera be ořtxe geldituko da.

Aita ba-doa ta zu non zagozan ba-daki.

Norbaitek esan lei: bayetza danean ez idatzi ořelan, bestetara baňo: Ba-datoř aita ta ba-dakař zure eskubarea (be): onelan idatzi ezkero zalantza biderik ez dago. Bai, ori egia da; baňa ori eřiari auřeak artzea be *bai* da.

Baldintzadun esakunai «ba» ren auřetik baldin ipiňi... ta kitu: ori egin ezkero, zalantza biderik iňoz be ez legoke. Baňa, gogoak emon dauskula-ta ori egitea ſbařikeria ez ete-da ba?

Bizkayan euskaldun gitxi batzuk bai, baldin ori oparo erabilten dabe; baňa beste enparau guztiak, gitxitan baňo ez. Baldintza adierazo nai dogun bakořtsean, ba'ren auřetik «baldin» ori idatzi bear bagendu, ionak gengokez! Bizkai'ko euskaldunik geyenai zer diňoen eta zer darabilen ez dakiela esan bear izango geunkioe.

Baldin ori *pleonástico* ez al-da? «No tiene traduc-

ción directa; su oficio es dar más fuerza a la condición» (Azkue); baña pleonasmo'ak ez dira auréz eralbiteko, noizik-noizera ta aldi egokia danean baño. «Gaur ba-dator «eta» baldin gaur ba-dator», nire ustez ez dira bardin: gaur ba-dator, si viene hoy: baldin gaur ba-dator, si acaso viene hoy, si es que viene hoy. «Gaur ba-dator, biar goizean Bilbora joango gara»: ori diñoanak etoríko dalakoen ustea darakus: «Baldin gaur ba-dator, biar goizean joango gara»: au diñoanak etoríko ez ete-dan bildurá, etoríko dalakoen itxadona baño obeto adierazten dau. Eta «baldin» biíritan esan ezkerro, bete ezin daiteken baldintza adierazteko, berebizikoa dirudi:

Eta baldin *da* baldin jayo balitz muti// Arrese  
Kirriloak urratzen bearko eban i// Zorigach bi

2.<sup>º</sup> Bayetza adierazteko, bai erabiltea neste-bidea ei-da, euskalki batzuk bai ori erderazko «pues» adierazteko darabile-ta. Erabili bai darabile; baña bait'en ordez eta, augaitik, aditzaren lenengo izkia, al dan guztietan, gogoŕtu daroe: Baitakik bidea, Baititeke, Baitzinauden, Baitoa etc. Aditza n'gaz asten danean, olakorik ezin egin daitekela esango dau norbaitek. Egia da ori; baña ez'ek be orelako gertaldietan, alda-kuntzarik sortu barik, galtzen dau bere «z»; eneban enetoren, enebilan etc. «Ez» osotu egin bear litzakela gero dakuskegu: bai ta bait oŕekin beste oŕenbeste egin bedi... ta kitu.

Bai'ren ordez «ba» erabilten laburditaŕak nagusi dira: «Ni ba aspaldi zeta zu? — Bi oren huntan ba — Ni ere ba — Ba ni ere». Eŕiak an eta emen berenak egiten ditu: berak nai dauana egiten itxi ba-dayogu, urte batzuk baŕu aldakuntza ta laburkuntza bariak

eukiko doguz: bakaŕ (ba-dakaŕ) baki (ba-daki) luzee-giak dirala-ta, «kaŕ, ki» be oŕetarako naiko dirala irakatsiko dausku. Laburditaŕak gaur bai’ren ordez «ba» darabile, dirudianez; biar... ez dakit, baňa orain-go, agian, labuŕagoren baten bila-edo dabiltz. Guk «bai» osorik; aek euren bait osorik eta aditzari iratsi barik idaztea, ori litzake gauzarik zuzenena nire ustez. Onelan, iñori ezer kendu barik, bakotxari berea emoten yako eta au zerbait baňo geyago da, *zuzena baita* (bait da).

### ''EZ''

1.<sup>º</sup> Geyenez aditz-auŕetik dabilelako aditz-auŕizkia dalakoan, idazlerik geyenak aditzari iratsita dautse; baňa geyenez aditz-auŕetik ibiltea, aditz-auŕizkia izateko ez da naikoa. Etoŕi al-da edo etoŕi da-ala? Ez, ez jauna, erantzuten doguneko «ez» ori eta «ezta-etoŕi» diňoguneko «ez» au bat-bat dira. Ekaŕi zendun? *Ez* edo eneban ekaŕi; lenengo «ez» eta bigaŕen «e» ez dira gauza bi, bat eta berbera baňo: «ez, ez jauna» diňogunean ez da aditz-auŕizkia «adverbio de negación» baňo. Aditz-auŕetik doanean, antxe doalako beste barik, aditz-auŕizkia egiten eteda? «Bai» ta «ez» izkuntza orotan, geyenez aditz-auŕetik doaz eta nai-ta-ez antxe joan beaŕ dabe, ba-yetza ta ezetza aditzari dagokiozan ezkerro; baňa euskeratik lekot, aditz-auŕizkitzat iñok be ez daukaz. Euskeran ¿zegaitik ete-dira ba aditz-auŕizkiak? Eta itz bat eta bakaŕa izanik ¿zer dala-ta idatzi beaŕ ete-dogu batean «ez» bestean «e»?

2.<sup>º</sup> Baneban eta eneban alkarkideak dira; biak ižki bana galdu dabe: eztaki, eztator, ezkara etc. ta notiño, notaki, notakaŕ be alkaŕen antzekoak: etzan,

etziran eta iltzan, egontzan, altzera, altzerate oneik be alkaǵgandik uŕun ez dabiltz. Aldakuntza guzti oneik, aitaturiko itz oŕeik bata-bestearen jaŕai saŕi erabiliaren ondorenak dira: aldakuntza oŕeitan itz biren arteko aboskera edo izpiakerea dakusgu ta neuŕi bardińaz neurtu bear direala dirudi: edo guztiak artu edo guztiak laga.

Arana-Goiri'k, bere idazkerea erabilanean, eztator, eztaki, ezkagizuz, ezkara etc. idatzi eban beti; baňa nire aburu txikaŕez, berberak idatzitako arau oen auŕka: «Para el uso general de la Fonética, juzgo deben establecerse como reglas de buen criterio las siguientes: 1.<sup>a</sup> Una voz no debe influir fonéticamente sobre otra, aunque esté contigua». (Lecciones de Ortografía del Euskera bizkaino, pág. 163). Ez eta daki; ez eta gara; ez eta neban etc. itz bi dira, saŕi askotan banan, bakotxa bere aldetik dabiltzan itzak. Zer dala-ta idatzi bear dogu, ba, batean «daki» bestean ez-taki; batean gara, bestean ezkara, batean neban, bestean eneban? Daki ta taki, gara ta kara, datoŕ eta tator etc. aditzaren era bardińak ez al-dira? Ikuŕ bat ez al-dauke? Baňa eríak oŕelantxe oguzten ditu-ta. .? Eriak, notaki, notakaŕ, onetaki, onetakaŕ etcétera be esaten ditu; baňa itz bi nastau dituala-ta, eríaren esakera oneik iñok be ez ditu aintzat artzen. Eta beste oŕeik bai? ¿cur tam varie?

Antzińako idazle batzuk, ezdator, ezdaki, ez neban etcétera idatzi eben; geyenak eztaki, eztator, ezkara, eneban etc.; baňa onelan idatzi ebenok, iltzan, egontzan, altzera ta beste onein antzeko asko be idatzi eroezan eta onetan jaŕaigarí ez dirala orok dińogu. Antzińako euskal-idazle oŕeik euskera irakasteko asmoz bein be ezeben idatzi, erderarik ez ekienai euskeraz beste zerbait irakasteko asmoz baño. Gaur

egunean, edozein gai darabilgunean be, bide batez, euskera irakasteko asmoz idatzi bear dogula dirudi, au be noz-edo-noz egin bear da-ta; baña euskaldun irakuŕleak nozbait euskera euskalizti edo gramatika arauz ikasi dagien nai ba-dogu, umekeriak alde batera itxi-ta, aditza, auŕetik beintzat, beti garbi, neste barik, soil-soil idatzi bear dogu. *Aurizkiak* aditzetik berezi aŕen, atzizkiak bakaŕik be askotxu dira-ta, euskal-aditza umeai ondo irakatsi nai dautsenak zeregiñik asko izango dau. Gauza oneik eŕezago egin bearéan, gatxago egiteko asmoetan gabiltzala dirudi.

«Ez» aditzai iratsi eta itz bakaŕa bai’liran idazteak, gaiztasuna, iluna, ta nestea baño besterik ez dakar.

Aditza ikasi-ta gero be, irakurten diarduan ume-txuak onelako itzak; ezta, eztator, ezkara, ezkenduan, eztaramate, etzan, etziran, etzitzaison etc. aurkitu badagiz eta zer diran itandu ba-dayogu, zuzen erantzungo dauskunik ez uste izan: azaldu bear izango dautsaguz eta azaldu ta gero be zeintzuk aditz eta aditz-erak direan eŕez igariten ba-dau, gaitz erdi. Bada-torkit, ezpadator, bagiñazen (bagiñoazen) balego, ballira, eziñeike (ezin neike) badezakezu, bazezakean, *badaukazuta*, badata, badirata, badauzkaguta, ezpazait, eztaba, eztogota, eztauaketa, etzegoan, etzuten: oidira, oiziran, oizuan, oida, oitzituzten, omendira; alda, aldezakegu, alabi//, aldrit, albadet, albanu, ezal-deitzazu, ezaltzerate, ezotezuan, ezotediose, ezaldau-kagu, ta beste oŕelako asko ta asko, umeak azterketa edo analisis ondo egin al-izateko, neste-boŕaste laŕegi dira. Etoŕi aldira? ta aldira (denporara) etoŕi: joan altzera? eta altzera joan da txoria; ernetzen bada ta egizu bada ta onein antzeko beste batzuk neste txáragoa dakaŕe. (Garoa).

Eta I-ta-no-aditzaz ilun eta neste geyago: yoak,

etxoak; yiñok, etxiñok: bayakiñat, etxakiñat (etxakianat); yagiñadan, etxagíñadan; yakusen, eixakusen; yabilk, etxabilk; yaukak, etxaukak t. a. Oneik eta beste onein ideko enparau guztiak be ontzat artuko ete doguz? Baña etxiñok, etxakit, etxakat, etxarabilk t. a. eríak esaten dituala-ta, orelan idatzi ba-daiguz, notxiñok, notxakit, notxakat, notxarabilk t. a. eríak orelantxe oguzten dituan ezkerro, alkartuta, itz bakaá bai liran, idatzi bear geunkez. Eta au egin nai ez ba-da, beste ořeik be ez bediz egin.

Arana-Goiri'k asikeran aitatu dogun «ba» oretzaz, auxe esan eban: bayetza dikuíanean, «bai» idatzi bedi, aditzari erantsi barik; baldintza dikuíanean aldia berenez eta nai-ta-ez baldintzadun ba-da, «ba» ori berezkatz edo apostrofo batekin-edo, aditzetik albait gitxien berezi bedi: aldia berenez baldintzadun ez dalarik, geuk baldintzadun egiten dogunetan, *guion*-txiki bategaz pizka bat geyago bereztea, egokiena litzake.

Nik ondo deritxot; baña ikuí ořein ordez beste ego-kiagoen batzuk, norbaitek ba lekarz, aek itxi ta oneik artzeko gertu nago. Zelan edo alan, *aurizkiak* diralako oneik guztiok (bai, ba, 'ba-, ez, bait, baldin, balin, bide, bear, omen, ote, othe, ete, al, aal, oi, othoi uste, gogo, ari) aditzetik berezi ta aditza aldakuntza barik, bayetza ta ezetza dikuíanean bietan bardin idatzi bear litzakela deritxat. Umeai euskal-aditza irakasten diarduan irakasleari atzizkiak bakařik be zeregin eta lořik asko emongo dautse-ta.

**Eguskitza.**

# BAI-ADITZ IRIBIATU-AUREAN

---

(Eguzkitza euskaltzainaren txostenari erantzumenen.)

1. *Bai ta ez.* «Itz biok, dino Eguzkitzak, endabatekoak dira: bayetza ta ezetza dikuŕe: gaztelerazko *si ta no* direana, orixe berori dira, besterik ez». Erantzumena. Gure *ez*-ek erderazko «ni» bere adierazotendau; orduan «conjunction» da ta, onetariko itz guztien antzera, «atono» izan doa. *Ez bata ez bestea*, no lo uno, no lo otro. *Ez bata ez bestea*: ni lo uno, ni lo otro.»

2. «Saŕi baino saŕiago, dino gure lankideak, erabilí oi dira ta origaitik-edo aditz-aurean bein baño geyagotan izki bana galtzen dabe: *banaz, enintzan*». Aditz iribiatu-aurean esatea zeatzago edolitzake. Guztioik dakizunet, aditz muge (infinitivo) bat askotan erabilten dogu *imperativo* bailitzan eta orduan osoosorik gelditzen da aditza, aurétiak *ez* euki aŕen. Egunero esan ta entzun oi doguz onelango esakerak: *ez garbitu ori; ez yausi, maitetxo*. Entzun dodaz oŕegaitiño aldakuntzatxo batzuk: *etxaramon* (B-nu) (no le hagas caso) *ez yaramon-en* ordez; *etxauna* (Baztanen ta Oztandianon) *ez yauna* esateko; Zuberon *etxit, ez txit* oguzi-bearean ta beste bat edo bestetxo, guztiz gitxi.

3. Eguzkitzák. «Edo bakaŕik edo aditz-auretiak doaz beti, erderazko *si ta no* bezelaxe». Beti *ez*. *Ez ta imperativotzat* darabilgun aditz baten artean saŕi

erabili oi doguz beste itz batzuk bere. *Ez Jaungoikoa-gaitik inori kalterik egin. Ez berandurarte egon etxera etofi barik.*

4. «Augaitik-edo, dino Eguzkitak, aurízkiak di-realda diñoe batzuk.» Eztakit nire auñetik inok aurízkitat agertu etedauzkuzan; baina, *gramatiketan ezañen, idazkietan beintzat gure egunotararte euskalari geien-geien-geienak aurízkitat erabili dabez.* Eta onezaz ganera eriak, euskera-yaube dan eriak, euskalki guz-tietan onelantxe erabili dauz. ¿Zelan dakizu, esan daiket norbaitek, zelan dakizu eriak *ezkara etofi, banengoan neu* diñoañean, *ez ta ba* iratsita ala irastzaka darabiltzan? *Los fenómenos fonéticos de permútación nacen de choque de sonidos* (aotsen alkar yetetik aldakuntzazko ostagiak sortzen direala) edozein Fonetica-liburutan irakuí daikegu.

5. «Nire aburuz, dino gure lankide onak, erde-razko *si ta no* aditz-aurízkiak izango diran egunean gure *bai ta ez* be olako zerbait izango dira; baña bien bitartean *ez*. Erderaz aurízki (prefijos) ta atzizki (sufijos) eztirean itz asko aurízki ta atzizki doguz guk: «según dicen» (itz bitan erdaldunak) *dinoenez* (itz baten guk); «para mí» (bitan) *niretzat* (batan); «con el hombre» (irutan) *gizonagaz* edo *gizonarekin* (bat-en); «cuando vengan ustedes a mí» (bost itzetan), *zatorkidazenean* (batan); desde el mismo momento en que nos veáis vosotros (bederatzitan), *gakutsueza-netixek* (bakar baten). Azken itz *desde ta el* la misma ta *en ta que ta nos ta vosotros* gure izkuntzan aurízki artizki ta atzizki doguz. Oregaitino, onelangotzat, erabilteko, erdaldunak euren itz oñek alkar-iratsiarte egotekoak bagara, bene-benetan, gizonak, egoaritsu ta trentin (pachorra) andikoak gareala erakutsiko dogu. Erderea ezta euskerearen neurí gure eguneta-

rarte izan. ¿Euskaltzaindiak auferantzerako neuritzat artuko etedau?

6. Eguzkitzak. «Geyenetan aditz-aurretik dabiltzalako, euskaleria aditzakin batu ditu ta idazlerik geyenak be aditzari iratsi dautsez». Erantzumena. «Aditz-aurretik dabiltzalako ala aditzarenak direalako? Aditz aurretik darabilguz *oinez, itxasoz, eznez...* *oinez goaz, itxasoz daroagu, eznez beterik* (eztogi esaten *goaz oinez, daroagu itxasoz, beterik eznez*) eta z azkenki «modal» orek *eztau aditzean inoiz aldauntzarik egiten*. Eztogi ez esan ez entzuten: *oinez koaz, itxasoz taroagu, eznez peterik, ezkoaz, ezta-roagu ta ezpalitz-en antzera*. ¿Zegaitik *ezkoaz, ez-taroagu ta ezpalitz* bai ta *oinez koaz ta lagunak ez?* Arek, aditz-aurretik ibiliaz ganera, aditzenak eta adizki (partículas verbales de conjugación) direalako; onek, aditz-aurretik ibili ařen, euron buruen jaube «independientes» izanagaitik. Onelantxe gipuzkoerazko *zai gera ta bizkaierazko eurai daroatsez ta mairik mai narabile eztauz inok inoiz ez entzun ez idatzi izango za gera, eura daroatsez, mairik ma narabile, bagera ta badaroatsez ta banarabile entzun ta ebagi ta idatzi oi daroaguzanez.* ¿Zegaitik? Itz gitxitan: *bai auřizki dogulako; besteok bařiz aurítz bai ta auřizki ez.*

7. Eguzkitzak. «Idazlerik geyenak be aditzari iratsi dautsez, ori dala-ta, eriak aditzetan sartu dituan aldakuntza guztiak edo geyenak beintzat ontzat emonaz. Nire eretxi txikařez, aditzai iratsi barik, bereziki ta oso-osorik idatzi bear litzakez.» Gure lankide gartsu-ta sakonak, uste dodanez, zio auxe dauko *bai ta ez iratsi barik aditzai ganeratu bear geukezala esateko: bereber, eskuko edo menderatzaka «independientes» direala.* ¿Ezalda egia? Gatozan arira. *Ni ta gu ta zu bai ta ez baizen bereber «independientes»*

doguz eta aditz iribiatuari ezarten dautseguzanean eztoguz osorik esaten. *Nago, gagoz ta zagoz* esaten dogu ta ez *niago, guagoz, zuagoz*. *Ni ta gu ta zu* akatza kenduta darabilguzanean *iez ta bai* zegaitik eztoguz erabili bear?

8. Goazan auéra. Eguzkitzak. «**Bai**. Euskaleriak aditz-auŕean *bairen* ordez beti beti *ba* esaten daula diñoe; baina *ezta ta baida* eriak darabiltzala ta *eztabaidea* ortik sortu dala iñok be ezin ukatu daike. Euskaldunak euren artean *eztabaidea* darabilenetan *iez* esaten dabe beti *bai-da* ta iñoz bez *ba-da?*» Erantzumena. *Eztabaida* baino leku geiagotan esaten da *eztabada*, erderazko «disputa» adierazoteko. Nire iztegian iru euskalki dira *eztabadadunak* (BN, L, S), *eztabaidadunak* bi (B, G). Lenengoaren era-toŕi (derivados) bi batu nebazan: *eztabadakari* «disputador» ta *eztabadakatu* «disputar». *Eztabaidaren* eratorírik eneban batxo bere batu al izan. Badira, ganera, Bizkayan bertan *eztabada* esaren direan lekuak: nire Amaren ería, Mundaka gitxienez. An bik izka diarduenean, batek *ezta* badino, besteak *bada* erantzuten daki, ez, Lekeitio legez, *baida*. Ezta beraz zuzena gure lagunaren eritzia beti izkaldietan *baida* esaten dabela. Lekeitio *eztabaida* esan daroagu. *Bai* ori indar geiago emoteko erabilten dabe izka diarduenak. Baita, len noizbait emen aitaturiko *baiz* bere esaten dabe *eztabaidetan*. *Ezta* batak, *baida* besteak; *ez* batak, *baiz* besteak; batak *ezin*, besteak *baizin*. «Euren bayetzari indar geyago emotearén esaten dabela edonok daki, dino Eguzkitzak: augaitik bere bayetza sendoago egiteko aldia dala-ta, *ba'ren* ordez *bai* darabilan idazlea eriagaz dabil» Eta nik diñot «*ba-ren* ordez *baiz* darabilen idazlea eriagaz dabil. Ea, mutilak, eriak tokirik geyenetan darabilena

itzita nunbaikoak artu daiguzan: *Bai-baiz* oretatik *Babelera* eztago bide andirik eta auréra.

9. Gure lankide langile ta argi onek idatzi daus-kuzan itz orek «Saři baino sařiago erabili oi dira ta origaitik-edo aditz-auřean bein baño geyagotan izki bana galtzen dabe: *banaz*, *enintzan*» egi utsa dira. Oartxo bi ezaři dakioez ořegaitiňo: 1.<sup>a</sup> Lekeition, *baida*-ren uri maite dodan ořetan, ezaldozuz egunero entzuten onelako esakeratxoak: *banenguan neu ta!* ;*Banekidxan!* ;*bâkigu ori, emakumia, bâkigu!* Ta sineskaitz dan zerbait dantzuenean ezaldatzu euren ezpanetifik itz au belařiratu: *Bakixu!* Ora or, gizonak, *baida* ta bere laguntxo ořen erian bertan *banenguan*, *banekidxan*, *bâkigu* ta *bâkixu* ta, saretxo bat lau eskuren artean dogula baginoaz, sarekadea. 2.<sup>a</sup> Erial-de askotan aditz urgazleaz gitxitan erabilten dabe baiezko aurizki ori: *bada etorí* eztabe esaten, *baida etorí* bere ez. Euron ordez *Bai*, gizona, *etorí da* nai *etorí dala* gizona nai onen antzeko beste esamañaren bat aotan artu daroe. 3.<sup>a</sup> *Bada*-ren ordez *baida* baiño askozaz toki geiagotan esaten dau eřiak *gosia gosea*-ren ta *eskue eskua*-ren ordez; eta au gora-bera, bata-sunera eltzeařen, guztiok aintzat artu doguz *gosea* ta *eskua*, *gosia* ta *eskue* itzita. Beste onenbeste egin daigun *baida* ta *bada* ořezaz bere. ¿Zegaitik ez? Ogeigaren gizaldi onetararte euskalari guztiak egin dabena, ogeigareneko onek ¿zegaitik ez?

10. Eguzkitzak. «Norbaitek esango dau bear boda: bedi, baña aditz-aurétiak *ba* sariago entzungo dogu beste *bai* ori baño. ¿Eta oregaz zer? Eriak *bai-ri* bere *i* ori sari jan egiten dautsala-ta, idazleok be *i* ori baraustekeotzat edan bear etedogu? Ori *paitaŕa* baño be baraustekeko txaragoa litzake.» Erantzumena. Eriak *bai-ri* bere *i* ori, aditz iribiatu-auréan, uldu egi-

ten dautsalako, idazleok bere i ori uldu (kendu) egin bear dautsagu. ¿Zegaitik? Horatius-ek bere *Ars poetica*-n itz eder omentsu onek dakarz... *usus, quem penes arbitrium est et jus et norma loquendi*. Txosten mamintsu onetan paitaŕa aitatu dauskue **barausteko**. Oŕetarako ezeban idazleak *bai-ri* ezer kendu bearik: barausteko *baru-ri u uldu dautso ta ausi-ri i:* baru ausiteko-ren ordez barausteko. Egoki yan dautsoz bi izkinok. On dagioela. *Toŕa ta Katalin* goŕi beragan eukazan oŕetarako ¿zer dala ta asi ūaku *paiŕar* bila?

11. Eguzkitzak. «Eŕiak auŕez *notiño* (*nok diño*-ren ordez), *notaki*, *notakar*, *notarabil*; *oŕetiño*, *oŕetakar*, *oŕetarabil*, *oŕetaki*; *aretiño*, *aretaki*, *aretakar*, *aretarabil* eta abar esaten ditu; baňa itz bi óreikin bat egin eta biak alkaŕi iratsita idatzi dituan idazlea ¿zein da?» Oñatiko batzaŕerako egin neban *Fonética Vasca*-ren 30-gaŕen oŕialdean dauko Eguzkitzak onen erantzumena. *Los autores que más fenómenos fonéticos de esta naturaleza (los perifrásticos) han mostrado en sus escritos son los bizkainos; tales como los presbíteros Micoleta y Moguel (el mayor) y en especial los franciscanos Añibarro y Zabala. Bost pider* dakar Añibárok, *bider* esateko. *Bapez, bat bere ez-en* ordez askok erabilten dabe. *Bez, bere ez-en* ordezkoa, Eguzkitzaren txosten eder onetantxe bere ikusi dot. *Bizpairur ta bospasei* auŕez erabilten dabez Lapurdin ta Zuberon idazle ta mintzatzaleak. Bestela *notaki nork daki-ren* tokian eztot inon irakurí (1), eztot beintzat gomuta.

12. Eguzkitzak. «*Bai naz, bai dator...* eŕiak ez-dituala erabilten eta, baŕikeri iguingarítzat daukaguz.

---

(1) Safi idatziak izan dira (zer direan oartzaka édo) *Artolak dauko*-ren ordezko itz onek: Artola tauko, artola tauko, artola tauko dendea, sagar usteliez, sagar usteliez, sagar usteliez betea.

*Notaki, onetaki, oñetaki, aretaki* eñiak darabiltz; baña ontzat ez doguz emoten eta eñiaren okeña zuzendu egiten dogu. Batean bai, bestean ez «zegaitik ori?» Erantzumena. Batean bai ta bestean ez. Ona emen zegaitik. Luzetxoegi banaiz, parkatu. Gai bi, zio bi daukaz *bai-k ba* izateko, *nok daki-k notaki* izateko eztaukazanak. Lenengoa. *Notaki* ta lagun ofek, euskalki batzuetan eñiaren aotik olantxe (1) entzunaén, Bizkaierazko alde batzuetan, Gipuzkoerazko geienetan eta Napañoako ibar bat edo bestetan *daki* entzuten dogu, auñeko itz-azkenkia *k* danean bere: Árasaten ta Bergaran *no daki*, Azpeitin *zeiñek daki*, Donostian *zeiñek daki* ta *nork daki*, Betelun *nor daki*. Dakuskunez, eñiaren okeñori eñiak berak zuzentzen dausku. Ostera *bai-naz-en* ordez *banaz* ta *bai-datortzat badator* edozein aldetan dirauskuz eñiak, izkal-dietatik landa Lekeitio-aldean ta urian bertan bere bai. Bigárena. *Nork daki* ta *onek daki-ren* artean, batze-ko, eztago *bai-naz* ta *bai-datorren* arteko alkartasunik. «Zegaitik batu daroaz eñiak *nork* eta *daki*, *onek* eta *daki?* Lenengoak amaikitzat *k* ta bigárenak asitzat *d* daukezalako, ez *nork* eta *onek* eurenez, izatez, zen-tzunez *daki-ren* lagun direala-ta, osorik esatea gaítz dogulako baino. *Ni paíño obeto, bi piri, ekaři pat* esaten dau eñi *notaki* zaleak *nik baino, bik biri, ekařik bat-en* ordez. *K* auzoko txára daue konsonanteak beragaz bakean bizi al izateko. «Zegaitik batu daroáz eñiak *bai* ta *naz*, *bai* ta *dator*, *banaz* ta *badator* esa-teragiño? Osorik esatea gaítz daualako? ez. «*Bai-ren i* auzoko txára dalako? ezta. *I* dauke askenitzat

(1) Lau au batzafean irakuñi zanean, Ezpeletan eta Alduden *no taki* esa-ten dabela yakin genduan; Zuberon, P. Lhanderen ustez, *nurk taki*; Intzan, *nor taki*. Nire gomutea ilundu ezpadat, Zuberon jzer bitxiagorik! *nur taki* esaten dabe, baina *k* beste gertari batzuetan osorik geldituta; *hunek daki*; eta ez *hune taki*, *hunek taki* bere ez.

*sei, mai, loi* ta beste itz askok: bat ez batek eztau galtzen i ori aditz-auŕean, *baik* berea galdu daroan ez. Eztogu ez esan ez entzuten *se daukadaz*, *sei daukadazan-en* ordez; *iru ma neukazan*, *iru mai neukazantzat*. Gizonak: zurikoŕak bagara zuritu gaitezan. Eŕiaren *onetaki* ta *badator* oŕen artean eztago bardintasunik. Erderazko *los reyes s* ta *r* oŕen alkar jotea oguzgaizta dogulako, *lo reyes* esan daroagu, idatzi *los reyes*. Bardin jazoten da *onek daki, bik biri* ta euron antzeko esakeretan. Norbaitek ganeratu daike *baidator* eŕazago ulertzen dala *badator* baino. Bai. Erderazko venir-i dagokien *etori*, beli osorik erabiliezkeria eŕazago ulertuko litzateke, batean *etori* bestean *etor* esanda baino eŕazago. Eŕiak, ostera, *etori da, etorriko da* ta *etorten da* dirausku. ¿Zegaitik ez guk *etoriten da?* ¿Osoago ezalda? Ullerterazago ezalda? Bai, oso ta ulerterazago litzake, baina eŕiarena ezta *etoriten da* esatea. Baina, gizona, erantzun daikeste. A) Ipaŕagifek bere *Gernikako* arbolaren âpaldi (estrofa) baten *erortzen bazera-ren* ordez *eroritzen bazera* dino, B) Prai Bartolomek bere iru liburu naŕuzkoen azalean *ikaskizunak* idatzi-beaŕean *icasiquizunac* (*i* ta guzti, oso-osorik) ezari eban; z) ume izketan asibaŕi askok *etoriten* esan daroe. Itz osoak bear doguz, ulerterazak. *Lógica* eŕai-gogor aizto zorozduna eskuan dogula, oso bila asiezkeria, batean *baidator*, bestean *etoriten*, orain oso batzuk gero beste batzuk aintzat artuaz, beste izkerak eun mendenetan (eun gizalditan) ezin izan dabena, geuk euskaldunok, euskaltzainok urte gitxi baŕu egingo genduke: euskera osotutzako ori banatu ta lurpera-bidean ipini.

13. Eguzkitzak. «Itz au aintziña ta beñola *bai* esaten zala-ta orain be osorik ogutzi ezkeria, *bai* litzakela orok autortu bear dabe. «Urria etori eteda?

—Bai, bai jauna; bai andrea. Urlia etoñi eteda?—*Ba-da* etoñi. Lengo *bai* arek eta oingo *ba* onek ikur bat dauke; gauza bat eta bardiña adierazten dabe. Ori ta guzti be, arako lenengo *a bai* eta bigařen au *ba* idatzi bear eidoguz; baňa nik diñot eta zuzen nagoala dirudi: itz bakařa ta ikur bardiňagaz darabilgun itza ñzer dalata idatzi bear dogu, batean batera ta bestean bestera? Kirol-zale ete-gara?» Erantzumena. Alemanen izkereak eta gure onek alkařen antz andirik ez itzetan ez yoskeran izan ezařen (1) kopurugai (numerical) batzuk alkařen antzera eratu daroez. Erakusmentzat amařetik ogeira bitartekoak aitatu daiguzan. *Zehn* da Alemaneraz gure *amar*. *Elf* ta *zwölf* «amaika ta amabi» ezfira gureon antzekoak. Gure *amairu* arek *dreizehn* (itzez itz *iru amar*); amalau, *vierzehn*; amabost, *fünfzehn*; amasei, *sexzehn*; amazazpi, *siebzehn*; amazortzi, *achtzehn* ta emeretzi, *neunzehn*. *Amar* itz onezaz egin daigun gure Eguzkitzak *bai* aotan artuta dinoana: itz bakařa ta zentzun bakařez darabilgun itza ñzer dala-ta idatzi bear dogu batean batera ta bestean bestera? Zegaitik *amar*, bakařik darabilgunean *r* ta guzti, ta lagunakaz *r* bagarik? Zegaitik ez beti, Alemanak euren *zehn* legez, beti osorik: *amařeka*, *amarbi*, *amaríru*, *amarlau*, *amarbost*, *amarsei*, *amarzazpi*, *amarzortzi* ta *amarbederatz*? Kirolzale (edo Gernikako eibartařak esango leukēn olgetalarí) etegara *amaika*, *amabi* ta *emeretzi* ezpaneratueran? Ez, ezkara kirolzale, eřizale baino. Eřiak Alemanen *zehn amar* dogula dirausku ta aren *dreizehn amairu*, *ez amaríru*; ta guk *amairu* artu bear. Eřiak erderazko *sí viene*, *badator*; *si viene*, *bádator*; *ez baidator*; eta guk eřizale ta euskaltzale ta euskaltzain garealako,

(1) Itz bikoitzetan antz andia dabe.

gure aurétko gizaldi guztietan legez *badakar* ezpanetan eta *badakar* idaztortzetan erabili bear. Beste erakusmen bat. Erderazko «veinte» euskeraz *ogeい*, *ogoi*, *hogoi* esan daroagu. Uren kopurugai tolosbagâk (numerales sencillos) lagun dabezanean erderaz «veintiuno, veintidos» erebili oi dabe, ez osorik «veinte y dos, veinte y tres». Guk bizkaieraz nonnai ta giputzeraez uri batzuetan (Azpeitin, esaterako) *ogeい* ori i uldu oi dautsagu, erdaldunak euren «veinte» ri e kentzen dautsenetan: *ogeta bat*, veintiuno; *ogeta bi*, veintidos .. eta abar. ¿Kirolzale etedira Madridko izkeltzainak *veinte* erabiltea (*veinte y uno*) agintzen eztabenean? Ez, eztira kirolzale; munduko izkeltzaindi guztien antzera erizale dira. Izan gaitezan geu bere. Izkeltzaindiai etxake seinzarorik (aurzarorik) ezagutzen. Yaiobañaik izanañen, lenengo gizona bezelantxe, garako (adultos) dira. Erakutsi daigun geure lan eta erabagietan ezkareala kirolzale, garako ta erikoi ta eri-yañaile gareala; eta gure eriak beretzat artuta daukazalako, esan ta erakutsi daigun *amar* ta *bi* eztireala *amarbi*, *amabi* baino; eta bizkaieraz diardugunean, Eguzkitzak bere *Andre Maria'ren loretako ilean* legez guk bere esan daigun *ogetabakañen* egunerako irakurkizunak, *ogetabigañen...* eta abar. Batean *ogeい* oso-osorik, bestean *ogeta bat i* kenduta; eta bardin, eriak dinoalako, batean *bai* oso-osorik, bestean *badakit i* ulduta.

14. Lardizabal, Uruñuno, Altube ta neuronen esakizunak darakuskuz gero Eguzkitzak. ¡Orain esa-tera nuana bai dala polita! ¡Orixe bai dala gauza ederra — Ementxe bai egin dogula — ¿Baiotedaki? Esakizun onetatik iru, lenengo irurak eriarenak dira; azkena nonbait bai, alderik geienetan ez. ¿Eta badakizue, gizonak, eriarena zein eztan? — Azkueren

«baioetedaki»; eñiak baotedaki esan oi dau agitz, beintzat agixko.

15. Eguzkitzak. «¿Zegaitik esan bear ete-dogu báztuetan onelan eta uñengoan bestera: *ba da polita*, *ba da edeña*, *ba daki*, *oraintxe ba dakust*, ikurpen bardiña daun itza era bitara idazten dogularik?

Nik. ¡Zegaitik! eñiak dinoalako, euskera dalako.

16. *Bai* ren ordez (dino gure lagunak gero) *ba* idatzi ařen, zalantzari iñoz be ez ei-dago idaztietan: ostera *ba* ren ordez *bai* idatzi ezkerro, euskalkien arteko nastea ei-dator. Nire eretxiz *bai* ren ordez *ba* idatziezkerro, zalantzadun idazkerak legokey eta *ba* ren ordez *bai* idatziařen, euskalkien arteko nasterik ez letorke: baña ba letor be, naste ori kentzea sartu dauan euskalkiari dagokio ta ez besteai». Erantzume-na. Bizkaieraz ez, ezta Gipuzkoeraz bere, alderik geienetan beintzat; beste euskalki guztietau auñizki polit bat dauke «prefijo modal» erderazko *pues-i* dagokiona. *Bait-* da auñizki ori, ez *bai-*, Bonapartek uste ebanez. Bere azkenki *t* osorik esaten da «vocal» baten auréan: *baitoa* «pues vas» *baitintzen* «pues eras». «Consonante» bat yo bear daben guztian uldu egiten da ta izki ori z bada, *tz* itzultzen dau; *bodegarenak* badira, *petakaren*. *Edekiren baitzaye ezkondua* (Leizarraga, Luc. V-35); *nola nahi baituzue egin deza-zuen* (Leizarraga, Luc. VI-31); *guziz gorak gaitzirizko-tan baitaduzka behatoreak* (Duvoisin, Eccles. XII-3); *nolako baikara hitzez* (Leizarraga, II Cor, X-11). Eguzkitzaren itzetalik esan daike guk, bizkaieraz itz egiten dogunok, gai onetan zentzun-nasteren (confusión de acepciones) ařenkuraz eztogula bizi bear. Geure artean bere ořelako nastea erakori daiteke, *bai* ori aditz iribiatuaz osorik erabiliezkerro. Bizkaieraz *bait-* (en esan dodana) ezta erabilten; eta ostera

beste euskalkietan entzuten eztan «modal» eder bat, liburuetan gitxi irakuñiaaren (1) eñiari alde askotan entzuten dako. Nire iztegian auxe irakurten dogu: *Bai-, como prefijo de conjugación indica en segundo lugar el supositorio comparado, y en tal caso al verbo conjugado se le agrega el sufijo complementario-n: Bailetoñen*, como si el viniera; *bailitzan*, como si él fuera. Añasateko (Mondragoiko) eskribau orain bérreun urte izan zan Pedro Ignacio Barrutiak gabon gabeko ikuskizun bat idatzi eban, «acto para la noche buena». Beren eskutikoa itzez agertu eban *Euskalzalek* 1898' garén urtean lan irakurgarí au. Ona emen bere itz batzuk:

*Iru deabruk eñuki baga  
lasta-sakuba baininza ala  
kendu jeustez aiak,  
barberu baga osatu jataz neure azur ausiak (2).*

*Bainintzan* «como si fuera» da emen; Eguzkitzaren asmoa aintzat artuezkerro «ya era yo». Guri bere badagokigu neste ori kentzea.

17. Eguzkitzak. «Baldintza adierazten dauan *ba* ta bayetza dikuñana, eñiak ez ditu bardin oguzten: *Bádakar* «si lo trae» ta *badákar* (*bakar*) «sí lo trae», eñiak oguzkeran berezten ditu; baña idatzietan ¿zelan bereziko ete-doguz? ¿Ikuñen bat edo ipiñita? «*Bai noski*». Erantzumena. Egia da: eñiak eztauz bardin oguzten *badakar* «si lo trae» ta *badakar* «sí lo trae». Itz bat tonu bikoñ noiz dan adierazoteko, irakurtatz (signo diacrítico) onetatik bata zein bestea artu daikegu: tonu bako *kar* oñen azpitxoan mañatxo bat

(1) Neuretxoetan or-emenka ediro daike.

(2) Euskalzalek I. Urteko 413-gafen ofialdean.

ezañita; edo bestela, Eguzkitzak darakuskunet, *baren* gaintxoan agizko ikuña (acento ortográfico) ipiniaz. Lenengo irakurtatza zeatzagotzat daukat; neketsua litzakigu, ostera, bera erabiltea. Elaztegietan, euskerazko idazkiak argitaratzeko, *a*, *e*, *i*, *o*, *u* bear leukeez. Bigañena artu badaigu, gure idazkerea azaldueran onelango zerbait esan bear izango dogu. Azentu oriek erderaz daukan egikizuna ta gure artekoa bana dira, *diferenteak* dira. Erderazko azentudun izkaia beste guztiak baino gorago oguzten da, euskeraz ez. Gure *bádarabil* «si él lo mueve» eztogu, erderazko *viér<sub>tesennos</sub>* bezelan, *ba<sub>darabil</sub>* oguzten: lenengo iru izkaiak tonu bardinean; azkena berago, tonu bagarik: *badara<sub>bil.</sub>* Erderazko *en se<sup>gui</sup>da, inme<sup>dia</sup>ta<sup>men</sup>te ta*

*a<sup>vuel</sup>ta de co<sup>rre</sup>o*, guk onelantxe esan edo beintzat entzun daroaguz; *entzegi<sub>da</sub>* yoango gareala, *inmediatamen<sub>te</sub>* etorteko, *a buelta de ko<sup>re</sup>o* bialduko dauskuezala.

18. Eguzkitzak. Lengo erizkizunaren ostean, *bá-dakar* «si lo trae» ta *badakar* «sí lo trae» aitatuta gero dino «baña idatzietan zelan bereziko ete-doguz? Ikuñen bat edo ipiñita? Bai noski; baña ori baño *bai* idatzi obe da. *Bairen ordez ba* idatziezkerro, zelan irakuñi be ezin jakin geinke, esakunaren amaira el-duarte beintzat». Erantzumena. Ikuñ oñen bidez (*bá-dakar* edo *badakar* «si lo trae») zelan irakuñi eráz yakin leike.

19. Beste erizkizun polit bat dakar geroago Eguzkitzak. «Baldintzadun esakunai *baren* aurétiak baldin

ipiñi... ta kitu: ori egin ezkerro, zalantza biderik iñoz be ez lego ke. Baña, gogoak emon dauskula-ta ori egitea ȝbañikeria ez ete-da ba? Bizkayan euskaldun gitxi batzuk bai, baldin ori oparo erabilten dabe; baña beste enparau guztiak, gitxitan baño ez. Baldintza adierazo nai dogun bakotxe an; ba'ren aurétk «baldin» ori idatzi bearí bagendu, ionak gengokez! Bizkai'ko euskaldunik geyenai zer diñoen eta zer darabilen ez dakiela esan bearí izango geunkioe.

Baldin ori *pleonástico* ez al-da? «No tiene traducción directa; su oficio es dar más fuerza a la condición» (Azkue); baña pleonasmo'ak ez dira auréz eralbiteko, noizik-noizera ta aldi egokia danean baño. «Gaur ba-datorí «eta» baldin gaur ba-datorí», nire ustez ez dira bardin: gaur ba-datorí, si viene hoy: baldin gaur ba-datorí, si acaso viene hoy, si es que viene hoy. «Gaur ba-datorí, biar goizean Bilbora joango gara»: ori diñoanak etoríko dalako en ustea darakus: «Baldin gaur ba-datorí, biar goizean joango gara»: au diñoanak etoríko ez ete-dan bildurá, etoríko dalako en itxadona baño obeto adierazten dau. Eta «baldin» biñtan esan ezkerro, bete ezin daiteken baldintza adierazteko, berebizikoa dirudi:

Eta baldin *da* baldin jayo báritz muti//

Kirri loak urratzen bearko eban i//

Arrese = Zorigach bi.

Ederto ta biribil esana. Zeugaz nago lagun.

20. Eguzkitzak. «Bayetza adierazteko *bai* erabiltea nastebidea eida...» ta abar. Lero onetan ta ufengo zazpitán dirauskuna len daukagu irakurita, bere txostenaren irugareñ orialdeko bigařen lerotik zazpigañera bitartean. Lan onen 16-gařen esaldian ediro daike erantzumena.

21. Gure lagunak: «*Bai-ren ordez ba erabilten laburditarak nagusi dira: Ni ba aspaldi eta zu?—Bi oren huntas ba—Ni ere ba—Ba ni ere.* Eriak an eta emen berenak egiten ditu: berak nai dauana egiten itxi badayogu, urte batzuk baŕu aldakuntza ta laburkuntza baŕiak eukiko doguz: *bakaŕ (ba-dakaŕ), baki (ba-daki)* luzeegiak dirala-ta, *kar, ki* be oretarako naiko dirala irakatsiko dausku. Laburditarak gaur *bairen ordez ba* darabile, dirudianaz; biar... ez dakit, baňa oraingo, agian laburragoren baten bila edo dabiltz». Erantzumena. ¿Lapurdin baino ez? Gernikan bayetza indartsu ta biribil adierazoteko, *bo* esan daroe. *Boo* Lapurdin bere esan daroe, baina ukatzeko, nire ustez; Lekeition *¡ba!* esan zentzunean. *Gure Herriaren* azken geian 218'gaŕen oŕialdean: «Egun bertze desafio bat helarazia dute Sempertarrek Baionara. Zer uste duzue?-Pleka?-Ez-Kontrebandan?-Fa!-Kantuz?-¡Bo!. Zeberion ta beste basauritxoren batzuetan *bai-ren ordez fff entzunda nago ta ezetz esateko t* (gorantz). Gure lagunak bere itzetatik atera gura dauan ondoreaz enago. «Guk *bai* osorik, diňo berak; aek euren *bait* osorik eta aditzari iratsi barik idaztea, ori litzake gauzarik zuzenena nire ustez. Onelan, iñori ezer kendu barik, bakotxari berea emoten yako eta au zerbait baño geyago da, *zuzena baita* (*bait da*). Erantzumena. Osozale danak *amarbi, amaríru, amarlau... amarbederatzi*, (bizkaieraz bere) *ogeita bi, niago, guagoz, niengoan, guengozan, zuengozan eta* beste zireun osoki artu daizala betiko, bere ezpan-idaztortzeten. Gu ezkara osozale, erizale gara gu, Eriarenak gara, Eriarena da gure izkerea. Eriak zerbait era bitara darakuskunean, ikusi daigun zein dan bere yokerarik (tendencia) andiena. Orixo da gure bidea. *Bai ta ba-ren erizkizun onetan ikusi dozue,*

gizonak, zein dan eriaren naia, gure aurétko idazle guztiak aintzat artu ta erakutsi dauskuena.

Eguzkitzaren uste ta gurari onek aintzat artuezkerro, ezkendukez itz onek darabilguzanez erabili al izango: *Esateko, zoroztaři, bazkaldu, erabilten, zoragaría.....?* ¿Zelan beraz? *Esanteko, zořotztaři, bazkaritu* (zeatzago noski *baratzkaritu*) *erabiliten, begiazal, zorogaría.*

Eta onelantxe beste bosteun itz, geiago, askozaz geiago azaleratu leitekez, Eguzkitzaren ustea auréra eroanezkerro, aldabeáreko litzakezanak. Antzinako Geografoak batzuk Bretaña-ertzean, Galizia-ertzean besteak, *Finis terræ* ediro ebela uste eben. Uste ori auréra bere azken-ondoreneta eraonezkerro, *Finis linguæ* laster idoroko genduke.

Azkue

Bilbon 15-IV-1921. (1)

---

(1) Idaztitzo au eginda askozaz geroago Euskaltzaindiak *doguz-en* ordez *ditugu, ebezan-en* tokian *zituen*, Bizkaierez bere erabiltea erabagi ehan. Elez-tegikoai (imprentakoai) buruko min gelegi emotea izango zan, aspaldion gertu euken lantxo au ofelan aldatzea.

## EUSKALTZAINDIA'REN AGERKIZUNAK

*Euskaltzaindia'k, orain arte bereix argitaratu dituan agerkizunak onexek dira.*

1919.—REGLAMENTO INTERIOR DE LA ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA. *Euskalzaingoren araudia estaria.* Eusko - Argitaldaria, Bilbo, 1919. Amabost oírialde in-16 einekoak.

Aitua dago. (Agotado. *Épuisé*).

1920.—EUSKALTZAINDIAREN BAÑNEKO ARAUDIA. *Reglamento interior de la Academia de la Lengua Vasca.* Eusko-Argitaldaria, Bilbo, 1920. Ogeita-lau (12 + 12) oírialde, in-16 einekoak.

Auxe da aufetik dabiñen gutuntxoaren 2º gafen ateraldia. Ikus EUSKERA'ren I<sup>ko</sup> Atala, 60º gafen oírialdean.

1920.—EUSKALTZAINDIAREN SÓRTARAUAK. *Estatutos de la Academia de la Lengua Vasca.* Eusko-Argitaldaria, Bilbo, 1920. Amasei (8 + 8) oírialde in-16 einekoak.

1920.—INFORME DE LOS SEÑORES ACADÉMICOS A. CAMPIÓN Y P. BROUSSAIN A LA ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA SOBRE UNIFICACIÓN DEL EUSKERA. Imprenta del Ave María, Bilbao, 1920. Ogei oírialde, in-32 einekoak.

1920.—EUSKERA. EUSKALTZAINDIA'REN LAN ETA AGIRRIAK. *Trabajos y actas de la Academia de la Lengua Vasca.* Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque. I<sup>ko</sup> urtea, I<sup>ko</sup> zenbakia. Martín, Mena y C<sup>fa</sup>, San Sebastian. Laurogei oírialde, in 8º einekoak.

1920.—EUSKERA... I<sup>ko</sup> urtea, II gañen zenbakia. Edouard Privat'en iraÑkolan, Tolosa (Prantzikoan), 1921. Laurogeita-amasei oÑialde, in 8° einekoak.

1921.—EUSKERA... II gañen urtea, I<sup>ko</sup> zenbakia. Altube'tar Seber yaunaren saérako itzaldia eta Azkue yaunaren erantzupena. Edouard Privat'en iraÑkolan, Tolosa-Prantzikoan. Iruretan - ogei - ta - laur oÑialde, in-8° einekoak.

1921.—EUSKERA... II gañen urtea, II g. zenbakia. Aita Intza ta G. Lakonbe'ren saéritzaldiak eta Aita Olabide ta Azkue Jaunaren erantzumenak. Edouard Privat'en iraÑkolan, Tolosa (Prantzikoan). Irurogeita-lau oÑialde, in-8° einekoak.

1922.—EUSKERA... III g. urtea, I g. zenbakia. Euskeraren batasunaÑ izan diran batzaldietan irakuritako txosten edo ikerpenak. Eusko - Argitaldaria, Bilbo, Eun eta ogeita amabi oÑialde in-8° einekoak.

1922.—EUSKERA... III g. urtea II gn. zenbakia. Euskaltzaindia'ren bigaÑen urteko batzar-agiriak. Aita Zabala'ren aditza. Aita Intza'ren saéritzaldia (amaya). Eusko-Argitaldaria, Bilbo. Larogeitaamabost oÑialde, in-8° einekoak.

1922.—EUSKERA... III g. urtea III gn. zenbakia. Burunda'ko euskalkia. (A. Intzaren lana). Institut d' Estudis Catalans. (Azkue jaunaren txostena). «Bai» ta «Ez» aditz auÑean. (Eguskitza jaunaren txostena). «Bai» aditz iribiatu-auÑean. (Azkue jaunaren txostena). Eusko-Argitaldaria, Bilbo. Larogeitabi oÑialde in 8° einekoak.

1921.—LENENGO EUSKALEGUNETAKO ITZALDIAK. 1921

g. urteko Iraila'ren 4-8 bitártean Durango'n egindako euskal-yayetan irakurri ziran itzaldiak. Eusko-Argitaldaria, Bilbo. Eun eta ogeitamalau oríalde, in 8º einekoak.

Salgei, Eusko - Ikaskuntza'ren bazkide diranentzat 1,50 lauñleketan eta ezdiranentzat 2,50 lauñleketan.

1922.—Ipuin LABUÑAK (umetxoentzat). Garitaonandia'tar Bitoñek egiñak: Euskaltzaindia'ren idazti-batzaldian saritutako liburua. Eusko-Argitaldaria, Bilbo. Beñogaitamañ oríalde in-8º einekoak, apaingarri ta guzti.

Salgei: Eusko-Ikaskuntza'ren bazkide diranentzat lauñleko 1'en, ez diranentzat, lauñleko 1,25'n.

— OSASUNA, MERKETZA TA YANARITZAZ. *Junta de Cultura Vasca*'ren eskariz eta Euskaltzaindia'ren aginduz, Eskauriañza'ren Azpeitia'tar Julene'k egindako *Sukalde liburua*. Eusko-Argitaldaria, Bilbo. Beñogaitamalau oríalde, in 8º einekoak.

Salgei: Eusko-Ikaskuntza'ren bazkide diranentzat lauñleko'ren 0,75; ez diranentzan lauñleko 1.

EUSKAL - ABESTI. — *Esaten dute bada... Txiribogin andrea. Ezkongaietan. Bautista Bazteretxe...* Izki ta eresi.

Duan emoten dira.

---

Liburu ta gutunok, Euskaleñiko gutunegirik onenetan eta Euskaltzaindia'ren bein-beineko etxearen. (Ribera 18, Bilbo) saltzzen dira.